

Kidegoa: MAISU-MAISTRAK	Especialitatea: ATZERRIKO HIZKUNTZA INGELESA	Hizkuntza: EUSKARA
BALORAZIO IRIZPIDEAK		Gehieneko puntuazioak / murrizketa
<p>Baldintza formalak betetzen ez baditu:</p> <p>Programazio didaktikoak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafika eta tauletan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki-oinetan, orri-oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoak baino neurri txikiagoak erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. Programazioak gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.</p>		<p>Probaren A zatiaren balioaren % 50eko murrizketa</p>
Gaiaren antolaketa		2 puntu
<p>Programazioaren sarrera eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren arabera testuingurua ematea.</p>		1 puntu
<p>Ongi planteatuta daude programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziarioaren logika.</p>		1 puntu
Eduki teknikoak:		2 puntu
<p>Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu, mailaren arabera.</p> <p>Programazioak honakoak zehazten ditu: helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak, metodologia, baliabide didaktikoak, etengabeko ebaluazioarako prozedurak eta tresnak, bai eta aniztasunari erantzuteko neurriak ere, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berriazko premiak dituzten ikasleentzako kasuan. Lehen Hezkuntzaren kasuan, programazioak ikaskuntzaren estandarrak ere zehazten ditu, bai gako-gaitasunak eskuratzeari dagokionez, bai helburuak lortzeari dagokionez.</p>		2 puntu
Eduki didaktikoak:		6 puntu
<p>Ikasurterako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.</p>		1,8 puntu
<p>Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.</p>		1,8 puntu
<p>Aniztasunari erantzuteko neurri koherente eta egokiak erabiltzen ditu, arreta berezia jarriz hezkuntza laguntzako premia berriazkoak dituzten ikasleentzako neurriak.</p>		1,8 puntu
<p>Programazioa modu argian azaltzea.</p>		0,6 puntu
Zuzentasun ortografikoa (murrizketa)		2 puntu
<p>Ortografia akatsak</p>		1 puntu
<p>Gramatika akatsak</p>		1 puntu
<p>Programazio didaktikoa izangaiak egin behar duenez, eta horrek lan pertsonala eta indibiduala eskatzen duenez, programazio plagiatuak aurkezteak edo izangai batzuek programazio didaktiko bera aurkezteak esan nahi du hori egiten duten izangaiak zero puntuko kalifikazioa lortu behar dutela probaren zati honetan.</p>		